

**IRAKASLE KALERATUAK  
HAMAR URTE LUZE UNIBERTSITATEKO ATEAN  
EUSKAL UNIBERTSITATEA ESKATZEN**

*“Luze doa Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle kaleratuen arazoa: zotzi urte eta oraindik konpondu gabe. Nolanahi dela, arazoak bere hartan dirau, eta irakasle kaleratuek eutsi egiten diogu Euskal Herriaren eskubide baten aitortpena eskatuz, gure eskaria justua delakoan eta gure herriaren erakuntza nazionalerako ahalegin-txoa egiten dugulakoan. Izan ere, arazo horren konponketa egokiak onurak baino ezin ekar ditzakeela uste baitugu, eraikuntza nazionalerako bidean aurrerapausoa ematea bailitzateke” (Karmel, 2000-2, 89. orr.)*

Hitz hauek irekitzen dizkiote ateak, orain dela 2 urte Jose Ramon Etxebarriak Karmel aldizkari honetan *“Eraikuntza nazionalaren bidean, Irakaslego Propioa”* izenburua zuela idatzitako idazki luze eta sakonari.

Dagoeneko iragan dira hamar urte eta oraindik Unibertsitateko ateetan jarraitzen dute pankartaren atzean irakasle kaleratuek, bertaratzen diren guztien harridurarako eta euskaldunon lotsarako, ez baitugu ezer egin arazoari irtenbideak bilatzeko.

Asko idatzi eta hitz egin da hor eta hemen irakasle kaleratuek eskatu izan duten euskal unibertsitateari buruz, baina

ezer gutxi aurreratu dugula esatera ausartuko nintzateke. Edonola ere, arazoak pil-pilean jarraitzen du, une honetan Eusko Legebiltzarrari lege apropos bat egiteko eskaria bideratzeko herri-ekimen bat bidean delarik. Horrela ikusi izan genuen Getxon ospatu zen Ibilaldian ere, hainbat mahaitan sinadurak eskatzen zituztelarik.

Lan hau orrazten ari naizen egun honetan, bertan (2002-V-31) EUSKALDUNON EGUNKARIAN lan luze bat kaleratu dute, hurrengo esaldiak azpimarratuz: *“Edozein herritarrek espainolez ikastearena bermatua du estatuko edozein tokitan... Euskal Herrian euskaldunok ez; Euskarak, berriz, bere garapenerako tresna modernoak behar ditu. Bi hitzetan: Euskal Unibertsitatea”*.

Euskal Herriaren zerbitzuan jardungo duen unibertsitatearen alde egiteagatik kaleratutako irakaslearen gatazkak, esan bezala, lehenean jarraitzen du. Horrelako gatazka luzeek izan dezakeen arriskurik handiena oroimenaren gau iluneko isiltasunean zokoraturik geratzea izan ohi da.

Hori dela eta, besterik ezean, idazki honen bidez, beste behin, arazoaren eta gatazkaren oihartzun izan nahi dut. Bide batez, euskaldunoi zor zaigun unibertsitate euskalduna eskatu eta hori lortzeko hamar urteko borroka luzea eta latza eraman dutenen gatazka konpontzeko giltza izan dezaketanak lotatik esnatu.

Irakasle kaleratuen aldeko batzordeko kideok prentsaurreko batean esandako hainbat pasarte ere batu gura ditut, arazo hau konpontzeak gure herriarentzat daukan garrantzia agerian jartzeko. Orain dela bi urte honako hauek egin genituen ageriko Kafe Antzokian eginiko komunikabideen aurrean eginiko agerraldian

*“Irakasle kaleratuen inguruan bildu ondoren unibertsitateko gorabeherak hurbiletik jarraitu izan ditugunok, hainbat aldiz egin diegu dei bertako agintariei nabiz unibertsitate hori*

*diruz hornitzen duen Euskal Autonomi Erkidegoko arduradunei, benetako konponbideak ematen hasteko eskatuz.(...)*

*Unibertsitateak, alabaina, nahiago nahi izan du aurpegia zuritzea benetako konponbideak bilatzea baino. Behin eta berriro erakutsi izan du nahiago duela Madrileko gobernuaren, estatuko indarren menpe, morrontza gozoan irautea. Hori bai, urterik urte, gure diruen kudeatzaileak diren Autonomi Erkidegoko Agintariei geroago eta dirutza handiagoak, bai kudeaketa mailan bai soldatatan eskatuz.(...)*

*Behin eta berriro eskatu izan dugu, Euskal Herriak gure herriaren zerbitzuan jardungo duen unibertsitate propioa behar duela. Beste proiektu batzuk eginbidean badira ere, unibertsitate publikoak ere gure herriaren zerbitzuan jarri behar du, gure zergen bidezko baliabideak erabaki nahi baditu, behintzat. Nork jarriko, baina, txintxarria katuari?*

*Ezinbestekoa da Euskal Herrian kokatuta jardungo duen unibertsitate publikoak (diru publikoz sustatuak) etorkizunera begira sustraiak gure herriaren zerbitzuan sendo finkatuta, euskararen eta euskal kulturaren zerbitzuan aritzea. Eta oraingo unibertsitate publikoak ez du horretarako benetako gogorik ezta bokaziorik erakusten (...)*

*Une honetan, gure ustetan, unibertsitatea erdaltzaleen menpe egonik, ez du benetako euskalduntze-planik nai. Gure gazteei barre, eta Euskal gizarteari iruzur egiten dihardu. Ikastoletan eta Institutuetan balako ahalegin eta inbertsio handiak egin gazteak euskaraz ongi janzteko eta gero, bat-batean, jarraipenik ez unibertsitatean! Polito, ezta? Ez ote da hori adarra jotzea?"*

Hamargarren urtea Unibertsitateko ateetan pankartari eutsita igaro duten honetan, nire begirunerik behinena agertu nahi diet hain tinko euskaldunon berezko eskubide baten alde jotkatuz bizitzako hainbat "prebenda" ederri uko egin dien Antton Azkagorta, Jose Ramón Etxebarria, Jose Luis Herrero,

Enrique López eta Jesus Maria Zalakain irakasle kaleratuei, eta esker ona euren ondoan izateagatik hainbat zigor jasan dituen Xamardori.

Irakasle kaleratu horiek hainbat gogoeta eskaini dizkigute euskaldunok behar dugun unibertsitate euskaldunari buruz. Euren asmorik behinenak “*Historia de una pancarta, La lucha por el profesorado propio en la UPV (1988-1999)*” liburu mardulean eskaini ziguten. Duguna egina! aldizkarian bere agertu dituzte aldika beren asmoak. Aipaturiko liburuaren aurkezpena egiterakoan honako hau diote: “Eskuan pankarta bat dutela, egunero, Leioako campuseko sarreran dauden sei irakasleren historia kontatzen du liburu honek. Jarrera horrekin hezkuntza-sistema propiorako eta euskal unibertsitate nazionalerako bidean irakaslego propioa ahalbideratuko duen autonomia unibertsitarioa erreibindikatzen dute. Jarrera horregatik eta irakaskuntzaren arloaren erabateko funtzionarizazioaren aurka jarduteagatik, irakasle horiek kaleratuak eta errepresaliatuak izan dira”.

Aldizkari horren bidez dei zabal bat ere egiten dute: “Honela, bada, behean sinatzen dugunok uste dugu, bide honetan konprometiturik dauden indar eta sektore politiko, sozial eta herritar guztiek bat egin behar dutela, herritarren beharrezko erantzuteko eta, bereziki, gure hizkuntza zein kultur balore espezifikoak defendatu eta zabaltzeko gai izango den benetako Euskal Unibertsitate sortzailearen oinarriak prestatzeko lanean”.(DUGUN EGINA!, 1999ko abendua, 7. zk.)

Gaur egun ere, bide berdinetik dihardute. Egin-eginean ere 1998an “*Irakasle Propioaren alde Euskal Herrian*” txostenean kaleratutako asmoen alde jo eta ke pankartari eusten. Orduan, besteak beste, honako hauek esaten zituzten:

*Euskal Herriko Irakaskuntza-sistema Propioa behar du, berezkoak dituen baloreak eta nortasun-adierazleak garatu ahal izateko, bereziki bere hizkuntza, euskara. Honek, eredu akademikoak, linguistikoak, dozentek eta ikertzekoak diseinatze-*



*ko autonomia osoa eskatzen du; hain zuzen ere, errealitate sozial, politiko eta kulturalari buruzko ikuspegi propioa nabiz beroriek aldatzeko ahalmenak, mugatu ditzakeen Euskal Herritik kanpoko eskusartzerik gabekoa.*

*Irakaskuntza-sistemari dagokionez, pertsona abertzale eta progresista orok, beti amestu ohi du Euskal Unibertsitatea; hau, da euskal populuaren zerbitzuan jarritako unibertsitate nazional, euskaldun eta herritarra. Bestela esanda, euskal nazioaren erakuntza-bidean erreferente bilakatzeko gai izango den Unibertsitatea, alegia.*

*Horrela, Irakaslego Propioa erreibindikatzea, nahiera kolektibo honen adierazpen herritar nagusia izan da Unibertsitatean nabiz bertatik kanpo. Esan nahi baita, orain-oraingo borroka etengabearen bitartez, herri libre eta solidario gisa betikotzeko hain garrantzitsua dugun oinarrizko tresna honi, Euskal Unibertsitateari ateak zabaltzera bideraturiko nahiera. Horrela bakarrik lotu ahal izango du gure herriak,*

*berezkoa dugun nortasuna aitortzeak dakartzan eskakizunetatik abiatuz, giza ezagupeneko esperientzia guztietara zabalik jardutea.*

*Euskal Herriko Unibertsitatean Irakaskuntza-sistema Propiorik edota hori gauzatzeko Irakaslego Propioa ez izatea izan dugu, era berean, Euskal Herriaren eta bertako ikasleen bizkuntza-eskubideak unibertsitatean egiatan onartuak izateko eragozpenik nagusienetakoa bat.*

Orain arte agertu duten tinkotasuna ikusirik ez da harritzeko (lotsagarria izango dugun arren) Jose Ramonek KILI-KILI aldizkarian eginiko elkarrizketan esandakoa:

Kili-kili: -Azken sei urteotan erresistentzia "numantinoaren" irudi zaitugu Unibertsitatearen ate aurrean. Noiz eroriko dira Jerikoko harresi sendoak?

J. Ramonek: -Konponbidea noiz etor daitekeen ez dakit. Konfidantza dut etorriko dela. Dena den, nik uste dut merezi duela kausa justuen alde lan egiteak, eta gurea, kausa justua dela sute dut. Baina justiziari ezin zaio (jako) eperik jarri; horregatik, prest nago jubilazioa iritsi (heldu) arte pankartan egoteko" (Kili-kili, 1998, 220. zk.).

Lehenean jarraitzen du, oraingoz, bada, arazoak. Euskal Herriaren zerbitzuan jardungo duen unibertsitate euskaldunaren alde apustu egindako irakasleek euren jarrerarekin gogoe-ta sakona egitera eraman behar gaitu euskaldunok. Zama astuna hartu dute lepoan eta gainerako euskaldunok ere zerbait egin beharko dugu, ezta?

*Patxi Uribarren Leturiaga*